

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Lau elkarte mota daude:

-Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak:

Merkatu mota honetan, negozio-ereduak ez dira lehiakide haien artean eta elkarrekin lan egitea onuragarria izan daiteke bientzat.

-Lehiakideen arteko aliantza estrategikoak:

Merkatu segmentu berdina erakarri nahi duten enpresen arteko aliantzak. Gazteleraz, "Coopetencia" deitzen zaio ("Cooperacion + Competencia")

-Negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarteak, edo Joint Venture izenekoak:

Negozio baten garapenean bi enpresa baino gehiagok parte hartzen dutenean. Enpresa berri bat sortzeko izan daiteke edo lanak eta aktiboak elkarrekin kudeatzeko.

-Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko:

Beharrezkoak dituzten baliabideak eskuratzea bermatzen duen aliantza mota, jarduera aurrera eramateko.

Enpresa sortzerakoan, beste elkarte batzuen laguntza beharra sumatu dugu. Batez ere hornitzaile eta erosle arteko harremanari erreparatu diogu enpresaren errentagarritasuna lortzeko.

Hori dela eta, gure inguruko enpresa aktiboekin elkartu gera haietako batzuekin adostasun batzuetara iritsiz:

- Lehenik eta behin, **Alkanporen** laguntza beharko dugu sortu nahi dugun tresnaren oinarria egiteko material hornitzaile gisa. Honek bere jardueren artean guk behar ditugun hainbat elementuren produkzioa dauka, eta **Irungo Alkanpo** supermerkatuak prezio merkean utziko omen dizkigu behar ditugun lehengai horiek guztiak.

- **Maxichina** enpresak ere oihalez hornituko gaitu, dituzten produktuak baitira aurkitu ditugun hoberenak, prezioa eta kalitateari erreparatu. Honela, **Alkanporekin** batera gure jarduerak aurrera eramateko ezinbesteko ditugun lehengai guztiak eskuratu ahal izango ditugu.

- Azkenik, gure itunak ezinbestekoak izango ditugu proiektua aurrera ateratzeko. Hala nola,

1.- Propaganda eta salmentarako abilezia - Eider eta Amaiak jarriko dute jarduera hau betetzeko behar dugun lan eta abilezia.

2.- Hornitzaileak kudeatzeko abilezia – Iñaki arduratuko da enpresaren atal honetaz.

3.- Produktua sortzeko gaitasuna – Asierrek eramango du ekoizpen fasea.

4.- Diru kontuak eramateko gaitasuna - Denen artean egitea egokiena iruditu zaigu, gutxi garenez ez baita arazorik egongo, eta akatsak eta despistek sahiestuko ditugulako horrela.